

Ob Skena egoitza deialdia

Deialdiaren itxiera: 2024ko otsailaren 20a

II
Huarte
ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORANEO

Ob
Skena



Ob Skena (eszenatik at) eszenatoki batean erakutsi ohi ez dena eszenara gerturatzeaz datza, ikusgaitasunaren mugatik haratago joatea.

Uharte Zentroak 8 asteko iraupena duten ikerketa teoriko-praktikoak egiteko bi egoitza eskaintzen ditu; bata, bertako artista edo kolektibo bati zuzendua dago (Nafarroan jaiotakoa edo bizi dena) eta bestea, Estatuan bizi den artista edo kolektibo bati.

Proiektuek, eszenikoa edota gorputz adierazpena egunean dauden gizarte mugimendu eta politikoekin harremanean jarri beharko dute: feminismoa, adierazpen askatasuna, deskolonizazioa, lankidetzaren praktikak komunitatean, artea herrira gerturatzea, afektu politikak, ekonomia birpentsatzea, ekologia, erresistentzia moduak egungo egoeran, etab.

Ob Skena (eszenatik at) eszenatoki batean erakutsi ohi ez dena eszenara gerturatzeaz datza, ikusgaitasunaren mugatik haratago joatea. Era berean, eszenikoaren zabalkundea ematea eta mota guztietako praktika artistikoak bere baitan hartzea bilatzen du, proposamen eszenikoak, instalazio, arte komunitario, digital edo interaktibo gisa adieraztea ahalbidetuz.

Bertako artistak eta kanpokoak lan eremuan gutxienez bi astez bat egin dezaten saiatuko gara, elkarreragina sor dadin jakintza eta praktiken trukaketarako. Lana publikoaren aurrean elkarrekin aurkezteko ere data komun bat jarriko da.

Ikerketaren aurkezpena ekitaldi gisa egin beharko da, eta hainbat formatu erabili ahal izanen dira horretarako: hitzaldi performatibo bat, koreografia bat, ikusleekin elkarrekintza jolas proposamen bat, erakusketa eta bideo bidezko azalpenak, ildo batzuk emanez ibilbide bat... artistek eztabaidagai izan dituzten ideiak entzuleen eskura jartzeko.

NORI ZUZENDUA DAGO

Eszenikoan oinarrituz ikerketa prozesu bat garatzeko interesa duen edozein alorretako artista edo kolektibo bati zuzendua.

Egoitzetako bat Nafarroarekin harremana duten pertsona edo kolektibo bati zuzendua dago.

ZER ESKAINTZEN DA

- > 3.000€ (zerga eta atxikipen fiskalak barne) artista edo kolektibo bakoitzarentzat. Erdia egoitzaren hasieran emango da, eta beste erdia memoria aurkeztu ondoren.*
- > Bertakoa ez den pertsonarentzat ostatua eta Iruñera* joan etorriko bidaia.
- > Lanerako lekua Uharte Zentroan, bertako baliabide tekniko eta teknologikoak barne.
- > Proiektuaren garapenean Uharte Zentroko lantaldearen babesa eta jarraipena.

*Kolektiboen kasuan (hainbat lagun, elkarren arteko formalizaziorik gabe), aipatutako ordainsariak osorik emango zaizkio kolektiboak hautatutako bozeramaileari, edo balio bereko ordainketak egingo zaizkie kide guztiei.

